

HUERTIK TAILERRA

Zure etxean hiri ortua eta lorategi botanikoa izateko aukera dago tailer honegaz.

Lehenengo egunean, hiri ortua sortuko da. Ikasle bakotzak aukeratuko dau zer landatu eta zainketak zelan egin ikasiko dau. Batez be, bertako barietateak landuko dira.

Bigarren egunean, bigarren ortua egingo da, baina lorategi botaniko bat sortzeko. Ikasleak landatu nahi dauzan lorak aukeratuko dauz.

Egun bakotxean ikasleak etxera eroango dau prestatutako huertik-a.



2017ko maiatzaren 12an eta 26an, barikuak, 18:00-20:00.

Gizarte eta kultura etxeko sukalde tailerran (2. pisuan)

Prezioa: 6-9 ikasle balegoz - 45 € eta 10-15 ikasle balegoz – 35 €

Izena emon Kultura eta Hezkuntza Sailean, kultura@bermeo.eus

helbidean, 946179157 telefonoan edo bulegoan bertan, **maiatzaren 8ra arte.**

15 ikasle baino gehiago badagoz, zozketa egingo da maiatzaren 9an eta jakitera emongo da onartuen zerrenda eta itzarote-zerrendea.

MEXIKAR SUKALDARITZA

Mexikoko plater tipikoak, ezagunenak eta haragiak aromatizatzen erabiltzen dabezan saltsak landuko doguz batez be. Hainbat errezeta dagoz aukeratzeko, esate baterako: saltsa minak txileekaz, guacamole, haragi takoak, flautak, totopoak...

2 orduko klase bakoitzean bizpahiru plater prestatuko dira, eta klasea amaitzean talde-kideek dastatuko dabez. Tailerra amaitzean, CD bat errezeta ezagunekaz eta klasean bertan ateratako argazkiekaz emongo jako ikasle bakotxari.



2017ko ekainaren 2an eta 9an, barikuak, 18:00-20:00.

Gizarte eta kultura etxeko sukalde tailerran (2. pisuan)

Prezioa: 6-8 ikasle balegoz - 40 € eta 9-12 ikasle balegoz – 30 €

Izena emon: Kultura eta Hezkuntza sailean, kultura@bermeo.eus

helbidean, 946179157 telefonoan edo bulegoan bertan, maiatzaren 2tik 25era.

12 ikasle baino gehiago badagoz, zozketa egingo da maiatzaren 26an, eta jakitera emongo da onartuen zerrenda eta itzarote-zerrendea.

